

Organoa	Euskaraldia Batzordea	Bilera-zenbakia	2022/01
Eguna	2022/05/31	Hasiera-ordua	18:30
		Amaiera-ordua	19:30
Tokia	Elai Alai aretoko erakusketa gela		

Bertaratutakoak

Iñigo Magunagoikoetxea (**Euskara zinegotzia**)
 Estiñe Astorkia (**HITZARGUNE kanpainako arduraduna – Eusk. Zerb.**)
 Ekain Monge (**Euskaraldiko dinamizatzailea – Bust. Eusk. Bizi elkarte**)
 Begoña Zabaleta (**San Fidel ikastola**)
 Fernando Mugerza (**San Fidel ikastolako AMPA**)
 Lourdes Madariaga (**Gernika Institutua**)
 Igor Mejias (**Barrutialde Institutua**)
 Xabier Goiria (**URE elkarte**)
 Roke Ojanguren (**Seber Altube ikastola**)
 Miriam Agirre (**partikularra**)
 Bittor Zarrabeitia – **Euskara Teknikaria – Eusk. Zerb. (Batzordeko idazkari lanetan)**

Ezin etorria adierazi dutenak:

Jaione Iturbe – **Aita Villasante Udal Euskaltegia**
 Pernan Basterretxea - **Busturialdean Euskaraz Bizi elkarte**

GAI-ZERREDA

- 1.- Euskaraldiaren III. Ediziorako batzordea eratu.
- 2.- Dinamizazio estrategiarako oinarrien agiria aztertu eta onartzea, hala balegokio.

1).- EUSKARALDIAREN III. EDIZIORAKO BATZORDEA ERATU.

Aldez aurretik Bittor Zarrabeitiak Euskaraldiaren datu orokor batzuk adierazi ditu:

- 2018ko eta 2020ko partaide kopuruari dagokionean, Gernika-Lumon mantendu egin zen (2018an 3.169 eta 2020an 2.703), kontuan hartzen badugu I. edizioan herri txiki asko aktibatu barik zeudela eta inguruko askok Gernika-Lumon izena eman zutela; 2020an eskualdeko herri txikiak ere partaide izan ziren.
- Aurreko edizio bietan emakumezkoen partaidetza askoz handiagoa izan da gizonezkoena baino:

	2018ko edizioa		2020ko edizioa	
PARTAIDEAK GERNIKA-LUMON	3.169	%100	2703	%100
EMAKUMEZKOAK	1.997	%63	1704	%63,04
GIZONEZKOAK	1.172	%37	977	%36,15
EZ-BINARIOAK	--	--	22	%0,81
ROLAREN ARABERA				
AHOBIZIAK	2.708	%85	2409	%89,12
BELARRIPRESTAK	461	%15	294	%10,88
ADINAREN ARABERA				
16-30	729	%23	597	%22,09
31-45	1.141	%36	936	%34,63
46-60	887	%28	738	%27,63
61-75	380	%12	372	%13,76
75etik gorakoak	32	%1	60	%2,22

- Lehenengo edizio bietan Gernika-Lumon gazteen partaidetza nabarmentzekoa da (%23), kontuan harturik piramide demografikoa. Joera orokorra izan zen.
- 60 urtetik gorakoen partaidetza, ostera, askoz baxuagoa da. Oraingo edizioan ahalegin berezia egin beharko adin tarte horri dagokionean.
- Hirugarren ediziorako planteamendua erraztu egin da Topagunetik, telematikoki izena ematearen aldetik (entitateentzat zein



norbankoentzat) eta baita ere zabalkundeari dagokionean (aurreko bi edizioetako partaideekin datu base bakarra osatuko da zabalkundeari begira: mailing masiboak, SMSak,...)

Erabakia:

II. edizioan eratu zen Euskaraldia Batzordearen osaera hartuko da aintzat III. ediziorako, arreta berezia jarrita gazteen partaidetza erakartzeari (ikus I. eranskina) eta hiru maila desberdinduko dira:

- 1. maila.- Euskaraldia Batzordea (oinarria)**
- 2. maila.- Exekuziorako taldea: Euskara zinegotzia / Euskaraldiko dinamizatzailea / Hitzargune kanpainako arduraduna / Udaleko Euskara Teknikaria.**
- 3. maila.- Euskaraldiaren sarea udalerrian: esparru bakoitzean ereduzko entitateak.**

2).- DINAMIZAZIO ESTRATEGIARAKO OINARRIEN AGIRIA AZTERTU ETA ONARTZEA, HALA BALEGOKIO.

Akta honen I. eranskineko lehenengo atala (1. Euskaraldiaren sarea) onartutzat jota, hurrengoak aztertzeari ekin zaio.

Bigarren atala (2.- ZABALKUNDEA) Estiñe Astorkiak azaldu du, desberdinduz hurrengoak:

- Zabalkunde orokorra, goi-koordinakundetik Topaguneak burutuko duena: entitateei eta norbanakoei mailing masiboak, SMSak, eskualdeko eta lurralde mailako entitateak lantzea.
- Herri mailako zabalkunde, gure Batzordeari dagokiona: norbanako eta entitate berriak lortzea, girotzea, toki mailako komunikabideen zabalkunde eta trebakuntza (formakuntza norbanakoei eta tailerrak entitateei).

Horrez gain, adierazi du Hitzargune kanpaina baliatuko dela entitateak erakartzeko (enpresa ertain eta txikiak, merkataritza, ostalaritza eta elkarteak).

Jarraian, Ekain Mongek azaldu du zabalkunderako euskarriena (esku-orriak, kartelak, e-mailak, whatsappak, sare sozialak, pankarta handia, roll-upa, letra handiak,...). Nabarmendu egin du kaleko mahai

informatiboarena: irailetik aurrera jarriko da martxan, norbanakoen izen-emateari begira, Merkurio iturriaren inguruan eta zapatu eguerdian. Aurrekontuaren arabera, mahai horren ingurua girotzeari ekingo zaio, URE elkarte bitarteko.

Erabakia:

1.- Euskaraldiaren III. Edizioaren zabalkunderako planteamendu orokorra ontzat ematea (ikus 1. Eranskinaren bigarren atala).

2.- Bildutakoen ekarpena ontzat ematea: kaleko mahaiaren inguruan (edota erreferente izango den Turismo Bulegoan) tablet edo ordenagailuren bat izatea izen-ematea unean bertan egin ahal izateko.

Ondoren, Ekain Mongek jarraitu du azaltzen 1. Eranskineko hirugarren atala (3.- KRONOGRAMA). Horretan islatzen da aurreko puntuetan finkaturiko faseak eta zereginak noiz burutu. Azpimarratu egin du "Agerpena"-rena, San Juan Ibarren ekainaren 24aren inguruan entitateekin egitekoa.

Erabakia:

1.- Ontzat ematea 1. Eranskinan aurkeztutako KRONOGRAMA.

2.- Euskaraldiaren inguruko agerpena San Juan jaiaren inguruan antolatzea, San Juan ibarran izango den egitarauaren arabera une edo ekitaldi egokiarekin lotuta.

Amaitzeko, 1. Eranskineko laugarren atala azaltzeari ekin dio Ekain Mongek (4.- ENTITATEEN AURKEZPENAK). Ekainean eta uztailan bete beharreko fasea da eta oinarria izango da II. Edizioan izena eman zutenen zerrenda, guztira 97 entitate. Lehenengo bi asteetan irakaskuntza eta kirol esparrua lantzeko proposamena egiten da, ondoren beste gizarte esparruei ekiteko.

Erabakia:

1.- Ontzat ematea 1. Eranskineko 4. Puntua (4.- ENTITATEETAN AURKEZPENAK).

2.- Batzarkideen ekarpenak onartzea: musika eskolak eta txokoak kontuan hartzea entitateak erakartzeko orduan.





gernika-lumoko
euskara zerbitzua



Eta amaitutzat jo da batzarra, hurrengo bilkura uztailean izango delarik, entitateen fasearen berri emateko.

Gernika-Lumon, 2022ko maiatzaren 31n.

Euskara Zinegotzia

Batzordeko idazkaria

Iñigo Magunagoikoetxea

Bittor Zarrabeitia

